

4. Segurtasuna

4.2. Datu pertsonalen eta identitate digitalaren babesa:

4.2.2. Programa eta zerbitzu digitalak. Nola erabili arriskurik gabe

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Segurtasuna.
Datu pertsonalen eta
identitate digitalaren
babesa**

**Programa eta zerbitzu digitalak.
Nola erabili arriskurik gabe**




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



Kontziente izatea zer arrisku dakartzan Interneteko programa eta zerbitzu digital jakin batzuk onartzeak.

Jakitea nola babestu zure datu pertsonalak eta pribatutasuna Interneten.

AURKIBIDEA

- Zerbitzu digitalak erabiltzearen arriskuak
- Erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politikak
- Nola babestu gure datu pertsonalak
- Gehiago jakiteko...


ZERBITZU DIGITALAK ERABILTZEAREN ARRISKUAK

Ba al zenekien...?

- Bisitatzen ditugun webguneek **gure bilaketen datuak** gordetzen dituzte, Interneteko gure jardueraren segimendua egiteko eta baliabide teknologikoen bitartez (cookie-ak, adibidez) monitorizatzeko.
- Data Brokers deritzen enpresek, sare sozialek eta beste zerbitzu digital batzuek datu pribatuak biltzen dituzte eta hirugarrenei saltzen dizkiete, makrodatu edo **Big Data** eran.
- Zerbitzu digitalak modu ez-seguruan erabiltzeak **datu pertsonalak lapurtzea** eta **identitatea ordezkatzea** erraztu dezake.

PRIBATUTASUN-POLITIKAK ETA ERABILERA-BALDINTZAK

Zer dira?

- **Pribatutasun-politikak** zerbitzu digital batek erabiltzaileak ematen duen informazioa nola erabiliko duen zehazten duten lege-dokumentuak dira. 
Cookie-ei buruzko atal bat izaten dute, zeinak normalean helburu komertzialekin erabiltzen baitira.
- **Erabilera-baldintzek** erabiltzaileek zerbitzu digital batek eskaintzen dituen eduki eta irudiak nola erabil ditzaketan azaltzen dute.

Gomendioak

- ★ **Onartu aurretik, irakurri.** Ez sakatu presaka pribatutasun-politika eta erabilera-baldintzak onartzeko botoia.
- ★ Baldintzak onartzen badituzu, funtsezkoa da web-zerbitzuaren **pribatutasun-aukerak** konfiguratzeari, identitate digitala hobekien babesten dutenak aukeratzeko.



SEGURTASUNEZ NABIGATZEN AL DUZU INTERNETEN?


Sarean
nabigatzean
zure
pribatutasuna
babestu nahi
baduzu...



- Erabili aztarnari segitzea onartzen ez duten nabigatzaileak: [Opera](#), [Safari](#) edo [Brave](#).
- Erabili nabigazio-datuak erregistratzen ez dituzten bilatzaileak: [DuckDuckGo](#).
- Aukeratu orri fidagarriak, bereziki informazio konfidentziala eman behar baduzu:
 - URLaren hasieran [https://](#) dutenak seguruak dira, [http://](#) dutenak ez bezala.
 - Egiaztatu nabigazio-barran giltzarrapo itxiaren ikonoa agertzen dela. Ikono horrek webgunearen autentikotasuna egiaztatzen duen ziurtagiri digital baterako sarbidea ematen du.

BABESTU ZURE DATU PERTSONALAK INTERNETEN...

Interneten
nabigatzean
zure
pribatutasuna
babestu nahi
baduzu...



**Uste baduzu zure datuek ez dutela
baliorik, entzun [Marta Peiranoren](#)
hitzak.**

- Erabili pasahitz seguruak, aldatu maiz eta ez erabili pasahitz bera aplikazio batean baino gehiagotan.
- Ez erabili wifi-sare publikorik eragiketa pribatuak egiteko, ez baitira seguruak.
- Ez sartu informazio pribatua eskatzen duten webguneetan (bankuen webguneetan, adibidez) posta elektronikoko bidez jasotako esteken bidez.
- Desaktibatu geolokalizazioa, beharrezkoa ez denean.

... ETA SARE SOZIALETAN

Sare sozialetan parte hartzen duzunean, argitaratzen duzun informazioaren zabalkundearen gaineko kontrola galtzen duzu, eta beste pertsona batzuek modu desegokian erabil dezakete. Horregatik:



- ✓ Konfiguratu pribatutasun-aukerak, zure informazio pertsonalera zuk nahi duzun jendea soilik sar dadin.
- ✓ Zure sare sozialean informazioa argitaratu aurretik, pentsatu ongi: zure lehen iragazkia zu zeu zara. Eta kontuz bereziki argazki eta bideoekin, fisikoki identifikatzen baitzaituzte.

- ✓ Izan jarrera proaktiboa zure pribatutasunaren defentsan, eta azaldu besteei zein den zure irizpidea.
- ✓ Zurea ez den ordenagailu bat erabiltzen baduzu, itxi zure profil edo zerbitzuaren saioa amaitzean. Ixten ez baduzu, beste pertsona batek zure identitate digitala ordezkatu ahalko du.

GEHIAGO JAKITEKO...

Irakurri Internautaren Segurtasun Bulegoaren (OSI) informazio hau:

[Onartu aurretik, irakurri! Erabilera-baldintzez irakurtzen ez duguna](#)

Kontsultatu OSIren eta AEPDren dokumentu hau:

[Interneteko pribatutasunaren eta segurtasunaren gida](#)

Kontsultatu OSIren dokumentu hau:

[Babestu zaitez wifi publikoak erabiltzen dituzunean](#)



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



Basque Culinary Center

Biblioteka

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

Enpresa Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Biblioteka

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa

Biblioteka

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu